

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 125.000 euroko diru-laguntza emango die Nafarroa, Aragoi eta Errioxako industriei elikagai-segurtasunean aholkularitza eskaintzeko

Sektoreko enpresen alertak eta krisialdiak kudeatzeko informatika-aplikazio baten garapena barnean hartzen du

Lunes, 22 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuaren bidez, 125.000 euroko diru-laguntza emango die, elikagaien kalitate eta segurtasuneko alorrean, Nafarroa, Aragoi eta Errioxako nekazaritza-elikagaien enpresei aholkularitza eta prestakuntzako programa baterako. Hala jasota geratu da iragan astean Nafarroa, Errioxa eta Aragoiko Nekazaritzako Elikagai Industrien Elkartearekin (Consebro) izenpetutako lankidetzeta-hitzarmen batean.



Laguntzaren zenbatekoak, gainera, informatikako euskarri bat abian jartzea barnean hartzen du. Euskarri hori, hain zuzen, euskarri teknikoa izango da Prebentzio eta Autokontrolleko Batzordearen jarduerarako, hari atxikitako bere enpresen alertak eta krisialdiak kudeatzeari dagokionez.

Departamentuko kontseilari titular Lourdes Goicoechea Zubelzu Consebroren ordezkariarekin bildu da gaur, Nafarroa, Errioxa eta Aragoiko landaguneetan nekazaritzako elikagaien industriaren ureztatzearen eraginkortasuna hobetzeko programa horren eta beste batzuen egikaritze-mailaren berri izateko, FACUA proiektuaren berri, adibidez. Hiru erkidegok parte hartzen duten ekimen hori, Foru Erkidegoak sustatu du, eta 569.700 euroko finantzaketa du; kopuru horretatik 427.275 Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurune Ministerioak eman du, Landa Sare Nazionalaren eskutik.

Bileran Consebroren lehendakari Jose Pedro Salcedok eta elkarte horretako idazkari Jose Ignacio Callejak parte hartu dute.